

Lehen 3.
Hezkuntza 4.

Eremuak



HEZKUNTZA
ARTISTIKOA



NATUR
ZIENTZIAK




GIZARTE ETA
HIRI BALIOAK

Birziklapenak asko kontu diezazuke

Helburuak, aukerak, ideiak eta kontzeptuak

1. Hondakin mota ezberdinak identifikatu eta ondo bereiztu.
2. Birziklapena ingurumenarentzat zein garrantzitsua den jakitea.
3. Birziklapenaren gainean ditugun ohituren inguruko hausnarketa pertsonala sustatzea.
4. Lankidetzaren garrantzia baloratzea.




cristinaenea
— fundazioa —


ecoembes

Lehen 3.
Hezkuntza 4.

1. jarduera
Hietza, elkar ulertzeko giletza

Birziklapenak asko kontatuzazazuke

● Jarduera hau zertarako da?

Hondakin mota ezberdinak ezagutuko ditugu, ondo bereizten ikasiko dugu, gero birziklatzeko, eta ez birziklatzeak sor ditzakeen ingurumen-arazoak aztertuko ditugu.

● Zer behar dugu?

Folioak, paper jarraitua eta arkatza.



● Zer egingo dugu?

Ikasleei ikerketa-kazetariak bihur daitezten eskatuko diegu, gero euren familiei elkarrizketa egiteko.

Hondakinak sortu eta birziklatzeko dituzten ohiturak ezagutuko dituzte. Egun batzuk lehenago galdetegi bat prestatuko dugu, era honetako galderekin: Zenbat zakarrontzi edo birziklatzeko ontzi dituzue etxean? Zenbatero jaisten zarete kaleko edukiontzietara? Zein da gehien sortzen duzuen hondakin mota? Ondoren erantzun guztiak bateratuko ditugu eta gure ideiak eta iritziak eztabaidatuko ditugu lau bloketan bildu:

- Hondakinak ondo bereizten ditugu?
- Etxean ontziak bereizteak duen garrantzia.
- Zertan hobe dezakegu etxean bereizteko?
- Nola zabal dezakegu birziklapenak duen garrantzia

Ondorioak gelan apaindu eta zintzilikatuko dugun horma-irudian idatziko dira.

Jarraituko dugu?

Laburpen-dokumentu bat egin dezakegu, egunkariko artikulu baten antzera, eta etxera eramango dugu emaitzak familiarekin partekatzeko.